

Gipuzkoa



Gipuzkoako sagastiak bultzatzeko plana



Villabonako Otxalarrea etxaldean egin dute aurkezpena.

Bertako sagardoa ekoizteko sagarrondoan landaketa indartzeko plana adostu du Foru Aldundiak sagardogile elkarteekin

DV donostia

Martes, 14 junio 2016, 13:20



Gipuzkoako diputatu nagusiak, Markel Olanok, eta Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oregako diputatuak, Ainhoa Aizpuruk, Villabonako Otxalarrea etxaldean eman dute gaur ezagutzera bertako sagardoa ekoizteko Sagarrondoan Landaketa Bultzatzeko Plan berria, lurraldeko sagardogileen ordezkari nagusiekin batera. Aldundiak kudeatzen duen etxalde honetara egindako bisitan izan dira, baita ere, Ibon Aburuza eta Oihana Gainzerain, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko eta Sagardoaren Mahaia Elkarteko lehendakariak, hurrenez hurren. Olano eta Aizpuruk eman dute

egitasmoaren berri, zeinekin bilatzen den gure sagardoaren kalitatean salto esanguratsua ematea, sail berriak egokituz eta sagastiak landatu nahi dituzten ekoizleei lagunduz.

Ekimen hau lurraldeko sagardogileak batzen dituzten bi elkarteekin adostu da eta, akordio horren arabera, Foru Aldundiak sagastien zabalkundea bultzatzeko konpromisoa hartzen du. Batetik, baserritarrek nahiz sagardogileek eurek egindako landaketa berriak diruz lagunduko dira. Bestetik, sagarra ekoizteko aproposak diren herri lurrak bilatuko ditu, ekoizleei utzi eta haiek landu ditzaten. Aldi berean, lur-sail horietan lortutako fruitua bertako sagarrarekin egindako sagardoa ekoizteko erabiliko dute sagardogileek, zeinek kalitate marka publikoen araudira egokitzeko konpromisoa hartzen duten.

Markel Olano diputatu nagusiak azaldu duen moduan, sektoreak bizi duen arazo endemiko baten inguruan egindako gogoeta konpartitu batetik abiatzen da aurkeztutako plana. Hau da, kalitate handiko sagar gabezia dago bere jatorrian. Izan ere, azken urteotan asko geldotu da sagasti berrien landatzea, besteak beste, sagardotarako sagarraren erretabilitate baxua tarteko.

Errealitate honen aurreak diagnosis partekatu dugu eta lan-ildo bat adostu dugu, sektoreari bere osotasunean irtenbide konpartitu bat eskaini nahian. Erantzuna ematen diogu, gainera, lurralderako oso garrantzitsua eta enblematikoa den sektore bati. Horrela, alde batetik, landa ingurueta ekonomia aktibitatearen balioa azpimarratu eta babesten dugu, berekin dakartzan kohesio mailako eta paisaiaren arloko balioak kontuan hartuz. Bestetik, produktu baten kalitatearen aldeko apustua da, sektorearekin batera gure egiten duguna, ezagututa gainera sagardoak atzean dituen ohitura eta kultura aberatsak, adierazi du Olanok.

74 sagardotegi Gipuzkoan

Lurraldean 74 sagardotegik egiten dute sagardo naturala eta, hain zuzen ere, guztien artean 9,5 y 10 milioi litro ekoizten dituzte urtean. Gutxi gora behera 13,5 milioi kilo sagar behar dituzte horretarako eta fruitu horretatik lortzen duten sagardoak 15 milioi euroko balioa du merkatuan, orotara.

Gipuzkoako sagastiei dagokienez, 1.100 hektarea sagarrondo daude lurraldean, eta 5 eta 6,25 milioi kilo sagar ematen dituzte gaur egun, urte ona ala txarra izan zifrak aldatzen badira ere. Ondorioz, Gipuzkoak 7,5 milioi kiloko hutsunea du sagardotarako sagarretan, eta horregatik beste autonomia erkidego eta herrialde batzuetatik inportatu behar izaten dute fruta. Horrek esan nahi du urtero 1.860.000 eurok alde egiten dutela Gipuzkoatik, behar adina sagar ekoizteko modurik ez dugulako. Aipatutako defizitari aurre egiteko, berriz, kalkulatzen da 310 hektarea behar ditugula lurraldean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1984an ekin zion sagarrondo landaketak bultzatzeko plan bati. Egitasmo haren ondorioz, azken 31 urteotan 811,72 hektarea landatu dira Gipuzkoan. Hala ere, azken urteotan azalera berrien landatzea geldotu egin da.

Baita ere ikusi da gaur egungo sagardoak baduela kalitatearen arloan zer hobeturik, bai organoleptikaren ikuspuntutik, bai kalitatea denboran zehar mantendu ahal izateko. Gainera, sagardoaren salmenta prezioak baxuak dira, ez da produktuaren kalitatearekin proportzionala eta kalitate ezberdineko edariak antzeko prezioa izan ohi dute.

Sagar gehiago behar

Errealitate honen aurrean, Gipuzkoan egiten den sagardo guztia bertako sagarrarekin ekoiztea da Sagarrondoaren Landaketa Bultzatzeko Planaren helburua, Ainhoa Aizpuruk azaldu duenez, sagardotegien eta berekin duten kulturaren jasangarritasuna eta biziraupena bermatzeko modu egokiena delako. Hori lortzeko, baina, ezinbestekoa da behar adinako sagar produkzioa lortzea, sagardogileek kalitatezko produktu batekin lan egiteko aukera izan dezaten.

Sektoreak bizi duen egoeraren aurrean, Foru Aldundiak erraztasunak eskaini nahi dizkie sagardogileei, lur-sail aproposak eta finantziario plan egoki bat prestatuz. Sagardogileek, berriz, marka publikoen babesean prestatutako kalitate plangintza batean sartzeko konpromisoa hartzen dute. Horretarako ere Foru Aldundiaren babesa eta Eusko Jaurlaritzaren kontrol eta egiaztapena izango dute.

Aldundiak lehen bost urteetako hasierako inbertsioa diruz lagunduko du, sagarrondoak fruitua ematen hasten diren arte 11.500 euroko laguntza hektarea bakoitzeko, eta landaketen inguruko hobekuntza, aholkularitza eta formazioa eskainiko dio sektoreari. Aizpuruk gogoratu duenez, plan berria martxan jartzeak landaketen inguruan sortzen diren lanpostuen sorrera ekarriko du, erabilpenik gabeko landa eremuen biziberritzea ekarriko du eta sagardoen ezberdintzea eta kalitatean aurrerapausoak emateko balioko du.

La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Gipuzkoa

[Top 50](#)

- 1 **Encuentro en Goienetxe 46 años después**
- 2 **Urge futuro marido**
- 3 **Garbiñe Mendizabal: «Se está produciendo un proceso de relajación de los padres en la transmisión del euskera»**
- 4 **Detenido un camionero por conducir bajo los efectos de las drogas en la N-1 en Tolosa**
- 5 **Los psicofármacos que se prescriben a menores en Gipuzkoa se duplican en 7 años**

Noticias relacionadas

Tres grandes clanes gallegos, en el punto de mira por el 'narcosubmarino'



Nadal, el 'hombre 10' del deporte español



'Shameless' sin Fiona es menos 'Shameless'



Patrocinada

HONDA

Honda HR-V: Un SUV compacto, elegante y deportivo



CONTENIDO PATROCINADO

Enlaces Patrocinados por Taboola

Es desgarrador donde vive Antonio banderas a los 59 años

Locksmith of Hearts

Hernani: Gente con 5-49 vehículos ha descubierto este sistema

Expert Market

Trata de no impresionarte cuando veas a la esposa de David Villa

Game Of Glam

MÁS NOTICIAS

por Taboola

Garbiñe Mendizabal: «Se está produciendo un proceso de relajación de los padres en la transmisión del euskera»

Pastelería Izar: una dulce y larga tradición familiar

«Martin Odegaard es feliz, ¿por qué no le firmáis 8 años como a Williams?»

Fotos



📷 **Un millar de personas se manifiesta en Donostia**

📷 **El desembarco del 'Aita Mari' en Sicilia**



📷 **'Parte Vieja y puerto de San Sebastián: conjunto monumental'**

📷 **La Real Sociedad prepara el derbi ante el Eibar**

Vídeos



San Sebastián se ilumina para la Navidad





© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018



[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)